

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 84/2021 Erabakia, martxoaren 2koa. Onestea COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2021eko ekitaldian sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia**

Merkataritza sektorea funtsezkoa da, enplegua sortzen duelako eta herri eta hirietako ekonomia eta gizarte jarduerak egituratzen dituelako.

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia globalizat jo zuen COVID-19aren hedapena, mundu osoan zabaldu zelako. Bestalde, osasun publikoko larrialdi egoera eta nazioarteko pandemia ikusita, Espainiako Gobernuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi zuen, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko zuena. Araudi horren ondorioz, zirkulazio askeari mugak ezarri zitzaizkion, baita enpresa jardueraren murrizketa ere, berrogeialdiko eta euste neurriengatik.

Konfinamendutik ateratzeko prozesuaren eta lehen alarma egoeraren indarraldiaren amaieraren ondoren, normaltasun berriko etapa bat ezarri zen, eta, aldi horretan, osasun agintariek neurriak hartzen jarraitu zuten, gerta zitezkeen agerraldiak kontrolatzeko. Udazkeneko kasu kopuruaren goranzko joerak, gaixotasunaren transmisioak eta intzidentzia tasa metatuak eragin zuten urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua xedatzea, alarma egoera deklaratzeko zuena, SARSCoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko. Dekretu horren ondorioz, neurri murriztaileak hartu dira mugikortasunari, edukierari eta irekitzeko ordutegiari dagokienez.

Gorabehera horiek eragina izan dute enpresa guztien jardueran, baina neurri handiagoan merkataritza sektorean. Eta are eragin handiagoa izan du landa eremuan edo udalerririk txikietan; izan ere, zenbait alditan itxialdi perimetrala ezarri da udalerrietan, eta horrek pertsonen ohiko fluxua eragotzi du.

Arabako Foru Aldundiak lankidetzan jardun nahi du COVID-19ak eragindako krisiaren ondorio ekonomikoari aurre egiteko prozesu honetan inplikaturako enpresaburuek eta plantillek beren gain hartutako ahaleginetan, eta laguntza eman nahi die, lehiakorrek izan arren, egoera guztiz ohiz kanpoko, gerora etorritako eta eremu globaleko ondorioak jasaten dituzten enpresei eta autonomoei.

Horrela, 2020an Araban ekonomia suspertzeko plan bat martxan jartzea aurreikusi zuen eta 2021ean luzapena izango du, pandemiak lurraldeko sare ekonomikoan eragin dituen ondorioak arintzeko. Egin beharreko jarduketan artean dago saltokientzako deialdiak garatzea.

Ebazpen honen bidez, COVID-19aren ondorioz gure merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei eta/edo korronteei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia egiten da.

Arabako Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hartutako

## ERABAKIA

Lehenengoa. COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2021eko ekitaldian sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia onartzea.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta ebazpen honen I. eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 30.5.02.36.01.479.00.01 partidaren kontura ordainduko dira, xedapen erreferentzia honekin: 105.329/000, eta 500.000,00 euroko zuzkidurarekin.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke Foru Gobernu Kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazio auzietarako epaitegietan, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta*

*Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS**

**I. ERANSKINA**

COVID-19AK ARABAKO MERKATARITZA SEKTOREAN 2021EKO EKITALDIAN SORTUTAKO  
JARDUERA GASTUEI AURRE EGITEKO EZOHICO LAGUNTZEN DEIALDIA

**1. artikulua. Helburua**

Deialdi honen xedea da Arabako merkataritza sektoreko autonomoei eta enpresei laguntzea, COVIDek 2021eko ekitaldian sortutako jarduera gastuak edo gastu korronteak estaltzeko.

**2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehienezko zenbateko osoa**

2.1. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 30.5.02.36.01.479.00.01 partidaren kontura ordainduko dira, xedapen erreferentzia honekin: 105.329/000, eta 500.000,00 euroko zuzkidurarekin.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

### 3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak, beren jarduera txikizkako merkataritza sektorean garatzen badute:

a) Langile autonomoak, baldin gehienez ere 8 enplegatu badituzte.

b) Sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak, gehienez ere 9 autonomoz osatuak.

c) Merkataritza sozietateak, baldin enpresan dituzten partaidetzak autonomoen araubide berezian kotizatzen duten gehienez ere 9 langileri badagozkie (edo araubide orokorrean, kooperatiben edo lan sozietate mugatuen kasuan).

Enplegatutako pertsonen datu horretarako, kontuan hartuko da laguntza eskaera aurkeztu aurreko hamabi hilabeteko batez besteko plantilla. Batez besteko plantilla egiaztatze, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako egiaztagiria bat erabiliko da, laguntza eskatu aurreko urtean izandako batez besteko plantillari buruzkoa (erakunde eskatzailearen kotizazio kontu guztiak barne). Erakundeak alta geroago eman badu, gizarte segurantzaren alta eman zuen egunetik eskaera egin zen egunera arteko aldirako egiaztagiria eskatu beharko da.

Eskaera bat (egokitzat jotako inbertsio motetarako) baino ezingo dute aurkeztu b) eta c) idatz zatietan zehaztutako onuradunek, berdin diolarik erakundeak autonomo batek baino gehiagok osatzen badituzte: langile autonomoen eta kontratatutako pertsonen baturak ezin du 9 langileko kopurua gainditu.

3.2 Erakunde onuradunek gutxienez salmenta puntu bat eta/edo zerbitzu fisikoak eduki behar dituzte Arabako udalerrietako merkataritzarako etxabeetan eta/edo elikadura galerietan (auzo merkatuak). Eta txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorekoak izan beharko dira, edo artisautza lantegi bat izan beharko dute, jendeari saltzeko. Araudi honen ondorioetarako, txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorekoak izango dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda daudenak:

– Lehenengo ataletik, honako talde hauek:

64 taldea. Janarien, edarien eta tabakoen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina.

65 taldea. Elikadurarako ez diren ekoizkin industrialen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina (salbu eta 654 eta 655 taldeak).

97 taldea. Zerbitzu pertsonalak (salbu eta 974 taldea).

755 Idea. Bidaia agentziak.

– Bigarren ataletik, 86 taldea. Lanbide liberalak, artistikoak eta literarioak.

3.3 Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian.

3.4. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten erakundeak ezingo dira izan onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan.

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jasan duten pertsona fisiko edo juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako

epealdia amaitu arte, ez eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaien ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko ogasun nagusiaren antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duenez, Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean idatzitakoaren arabera.

#### **4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

4.1. Jarduera gastuak hartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat, honako kontzeptu hauei dagozkienak:

a) Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) norberaren konturako langile gisa kotizatzeako kuotak.

b) Lokala edo hiri finka alokatzeak dakartzan gastuak, baldin eta lokalaren errentatzailearekin bigarren mailarainoko odol edo ezkontza ahaidetasunik ez badago, eta errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez bada.

c) Jarduera garatzen den lokala ordaintzeko hipoteka maileguren kuotak, interesak eta printzipalaren amortizazioa barne.

d) Arabako Lurralde Historikoko arloan arloko elkarteetara afiliatuta egotearen gastuak.

e) Langile eta bezeroen segurtasunarekin eta osasun babesarekin lotutako materialen eta horniduren gastuak: gel hidroalkoholikoak, maskarak, epiak, seinaleztapen itsasgarriak, etab.

f) COVID-19ak onuradun enpresan duen eraginari lotutako aholkularitza eta kontsultoretza gastuak.

g) Publizitatearekin, sustapenarekin eta irudi korporatiboarekin lotutako gastuak.

4.2. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta erakunde onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, berreskuratze edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4.3. Baimenduta dago diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikokoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero.

4.4 Dirulaguntzaren xede diren gastuak egiteko ezarritakoak bainoaldi luzeagoei badagozkie fakturatutako gastuak, hurrengo artikuluan ezarritako gauzatzealdian sartuta dauden fakturatutako hilabeteko egunen arabera hainbanatuko dira.

#### **5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea**

Deialdi honen onuradun diren erakundeek honako aldi hauetan gauzatu beharko dituzte diruz lagundu daitezkeen gastuak:

— a, b, c eta d ataletako gastuak, 2020ko azaroaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra artean, biak barne.

— e, f eta g ataletako gastuak, 2020ko urriaren 25etik 2021eko urriaren 31ra artean, biak barne.

#### **6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

6.1. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatu dakiekeen dirulaguntza ehuneko 50 izango da.

Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada aurreko 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da, hainbanaketaz ehuneko 70eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko.

6.2 Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.000,00 eurokoa izango da onuraduneko.

6.3. Dirulaguntzarako eskubidea izateko, diruz lagundu daitezkeen gastu guztien gutxieneko zenbatekoa 400 euro izan beharko da onuraduneko.

6.4. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontua 9.3.b) apartatuan aurkeztutako dokumentazioaren arabera kalkulatu da. Eskatzaileak gastuak aurkezten baditu eta haien kargua ez badago kontuan eskaerak aurkezteko egunean (LAAB, maileguen kuotak), onuradunak aurrekontu gisa gehitu ahal izango du benetan aurkeztutako azken hilabeteko zenbatekoa.

### **7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

7.1. Oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduerak jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso edo eskatu baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran. Kasu horretan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eragina izango badu, erakunde onuradunak uko egin beharko die aurretik eskuratutako dirulaguntzei; halaber, jasotako funts publikoak itzuli beharko ditu, hala badagokio.

7.4. Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Ondorio horietarako, Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela izango 200.000 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

### **8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak**

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2021eko apirilaren 9an, 14:00etan bukatuko da.

9.2. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen erregistro elektronikoan.

AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektroniko baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

9.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

a) Ekonomia jardueren gaineko zergaren alta inprimakia, deialdi honetako 3.2 artikuluan aipatutako epigrafeetako batean, gutxienez.

b) Aurrekontu lagungarria kalkulatzeko ziurtagiriak.

– 4.1 artikuluko a, b, c eta d apartatuetako gastuen kasuan, fakturak, kuotak edo banku karguak aurkeztu beharko dira, zenbatekoa, kontzeptua eta aldia egiaztatu ahal izateko.

– 4.1 artikuluko e, f eta g apartatuei dagozkien gastuen kasuan, dagozkien aurrekontuak edo fakturak aurkeztu beharko dira.

Hipoteka maileguen kuotei dagokienez, eta banku transferentzian hipotekatutako lokalaren helbidea zehazten ez bada, ostalaritza establezimendua kokatuta dagoen lokalaren hipotekaren eskrituraren kopia edo dagokion egiaztagiriak erantsi beharko ditu onuradunak.

Aurkeztutako inbertsio/jardunen batek kontratu txikien muga gainditzen badu (15.000,00 euro), eskatutako 3 eskaintzen fotokopia erantsi beharko da ondasuna sartu baino lehen, eta zein eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako egiaztagiria, laguntza eskatu aurreko 365 egunean izandako batez besteko plantillari buruzkoa (erakunde eskatzailearen kotizazio kontu guztiak barne). Erakundeak alta geroago eman badu, gizarte segurantzaren alta eman zuen egunetik eskaera egin zen egunera arteko aldirako egiaztagiria eskatu beharko da. Era berean, egun horien artean langilerik kontratatu ez bada, enpresaburu gisa erregistratuta egon ez dela adierazten duen txostena edo kotizazio kontuaren kodearen egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko da.

d) Eskatzailearen jardura memoria (zein merkataritza edo zerbitzu sektoretakoa den, lokalaren kokapen fisikoa, negozioaren ibilbidea, etab.) eta dirulaguntzaren xede diren jarduen memoria (aurkeztutako gastuen azalpena).

e) Dirulaguntza honetarako eskatutako jardueretarako beste diru sarrera batzuk lortu eta/edo eskatu badira, diru sarrera horien edo eskaeraren justifikazioa aurkeztu beharko da.

9.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eremuan identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.5. Dirulaguntza eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoeraren ziurtagiriak lortzeko.

9.6. Eskabidea behar bezala beteta ez badago, erakunde eskatzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak bidaltzeko. Halaber, ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Jakinazpenak eskabidean agertzen den helbidera posta elektronikoa bidalita egingo dira, jaso izanaren agiriarekin.

## **10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak**

10.1. Aurkeztutako eskaerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Merkataritza lokalaren kokagune den toki erakundearen biztanle kopurua (gehienez 40 puntu).

BIZTANLE KOPURUA	PUNTUAK
8.000 baino gutxiago	40 puntu
8.001tik 100.000ra biztanle bitartean	20 puntu
100.000 biztanle baino gehiago	10 puntu

b) Erakunde eskatzailearen langileen plantillaren tamaina. Atal horren barruan, langile autonomoen eta langile kontratatuen arteko batura hartuko da kontuan (gehienez 30 puntu). Atal horren barruan, langile autonomoen eta langile kontratatuen batura hartuko da kontuan, batez besteko plantillaren ziurtagiri aurkeztua ikusirik.

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BATEZ BESTEKO LANGILEAK	PUNTUAK
Langile bat edo gutxiago	30 puntu
Langile bat baino gehiago eta 2 langile edo gutxiago	27 puntu
2 langile baino gehiago eta 3 langile edo gutxiago	24 puntu
3 langile baino gehiago eta 4 langile edo gutxiago	21 puntu
4 langile baino gehiago eta 5 langile edo gutxiago	18 puntu
5 langile baino gehiago eta 6 langile edo gutxiago	15 puntu
6 langile baino gehiago eta 7 langile edo gutxiago	12 puntu
7 langile baino gehiago eta 8 langile edo gutxiago	9 puntu
8 langile baino gehiago eta 9 langile edo gutxiago	6 puntu

c) Enpresa eskatzailearen antzinatasuna. (gehienez, 10 puntu). Irizpide hau baloratzeko, JEZeko alta eguna hartuko da kontuan.

ENPRESAREN ANTZINATASUNA	PUNTUAK
20 urte baino gehiago	20 puntu
10 - 20 urte	15 puntu
5 - 10 urte	10 puntu
1 - 5 urte	5 puntu
Urte 1 baino gutxiago	0 puntu

d) Aurkeztutako eskaeran hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (10 puntu gehienez).

ESKAERAREN KALITATEA	PUNTUAK
Eskaera aurkezteko nean osorik aurkeztutako eskaerak	10 puntu
Osorik aurkeztutako eskaerak, lehen dokumentazio errekerimendu baten ondoren	5 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

e) Saltegia zein sektoretakoa den (gehienez, 10 puntu). Irizpide hau baloratzeko, JEZ nagusia hartuko da kontuan.

JEZ	PUNTUAK
651	10 puntu
64 taldea, 652 (652.1 izan ezik), 653, 656, 657, 659, 755 eta 86	5 puntu
652.1 eta 97 taldea	0 puntu

10.2. Erakunde onuradunak zehazteko, amaieran hautatzeko eta bakoitzari emango zaion munta zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoari men egingo zaio.

10.3. Baldin eta eskaerako jarduketa batzuek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez ez badute behar beste laguntzen dirulaguntzaren xedea lortzen, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 idatz zatian ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

#### **11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke Foru Gobernu Kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazio auzietarako epaitegietan, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

#### **12. artikulua. Dirulaguntza justifikatu eta ordaintzea**

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Dirulaguntzak bide elektronikotik justifikatuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

12.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2021eko azaroaren 2a baino lehen, egun hori barne:

– Egindako jardunen memoria.

– Justifikazio fakturen zerrenda, hauexek adieraziz: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze epea eta ordainketa eguna, hala badagokio.

– Justifikazio fakturak e, f eta g apartatuei dagozkien gastuen kasuan, eta faktura, kuota edo banku kargua, non egiaztatu ahal izango baita a, b, c eta d apartatuetako gastuei dagokien zenbatekoa, kontzeptua eta aldia.

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia jatorrizko dokumentuekin bat datoze.

b) Dirulaguntza honetaz gain, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.



Ez dira dirulaguntza ordaintzeko aurkeztutako justifikazio dokumentutzat hartuko eskabideari erantsi zaizkionak. Kasu horretan, onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu faktura eta/edo banku egiaztagiri horiek, aurrez zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektroniko kualifikatuen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Kontratu txiki gisa ezarritako zenbatekoak (15.000,00 euro) baino gehiago edo haien beste gasturik izanez gero, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago izanik.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Profesionalek igorritako fakturei dagokienez, onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada egin beharreko atxikipenak ez direla sartu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.4. Onuradunak lehenago aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak (banku transferentziak edo laburpenak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren ziguiluarekin) aurkezten dituenean, betiere 2022ko apirilaren 6a (egun hori barne) baino lehen, ordainduko da dirulaguntza.

12.5. Baldin eta 6.1 atalean ezarritako dirulaguntza mugaren bat aplikatu bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen murrizketak onartu ahal izango dira, esleitutako dirulaguntzak aldatu gabe. Horretarako, dirulaguntzaren xedea bete behar da eta murrizketa horiek justifikatu behar diren eta diruz lagundu daitezkeen gastuen gutxieneko zenbatekoa bete behar dute. Honela aterako da gutxieneko hori: emandako dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

12.6. Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketaren zenbatekoa, baldin eta 2021eko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaloa atzerriko monetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

### **13. artikulua. Interpretazioa eta garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

### **14. artikulua. Eskaerak egokitzea**

Jarduera jakin batzuetarako dirulaguntza eskatzen bada eta jarduera horiei ezin bazaie eman erabaki honetan arautzen diren dirulaguntzak, erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz lagundu nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurrez kudeatutako beste laguntza lerro

batzuei hobeto egokitzen zaizkielako, eta laguntza horiek esleitu ahal bazaizkie, aukeran izango da ofizioz dagokien laguntza lerrora aldatzea.

**15. artikulua. Emandako laguntza onartzea**

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berriaz uko egiten ez badio emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

**16. artikulua. Araubide juridikoa**

Erabaki honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzia; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.